

FRANCISCO de MOYUA 1764-1805

Francisco Moyua Txurrukaren konfiantzazko gizona zen Trafalgarren. Bergaran jaio zen eta bere osaba Jose Mazarredoren babespean Armadan sartu zen 1777an marina-zain gisa. Lehenengo urteetatik matematika, astronomia eta hidrografia ikasketetan eta nautika estregian interes handia erakutsi zuen. Gibraltarko setioaren ondoren ontzi-alferiz izendatu zuten eta kanpaina amaitu arteko liskarretan parte hartu zuen. Baina 1794an Ventura Barkaiztegiarekin batera Antilletako zientzia espedizioan itsasoratu zen eta itsas-armagizon zena berehala bihurtu zen zientzia-gizon. Txurruka bezala penintsulara itzuli zen Espainiak Lehenengo Koalizioa utzi eta Ingalaterraren aurkako gerrari hasiera eman zionean. Garai horretan Francisco Moyua Fragata-kapitain izendatu zuten eta kanpaina osoan Frantziako flota aliatua izanik Atlantikoan burututako ekintza guztietan kargu hori bete zuen. Espedizioaren garaietatik bere laguna zen Txurrukarekin batera Frantziara joan zen eta Napoleonen Kontsul-Gortean egon zen Amienseko Bake Ituna sinatu zen garaian. Baina 1804an gerra berriro piztu zenez Moyua, miresten zuen lagunarekin batera, *San Juan Nepomuceno* ontzira zerbitzua eskaintzera bidali zuten. San Juan Ontziak Eskuadra Bateratuarekin bat egin zuen Ferrolen eta geroxeago Cadizen egon zen 1805eko urriaren 19an itsasoratzeko zorigaitzeko agindu hura jaso zuen arte. Urriko 21eko lehenengo orduetan Moyuak, San Juan ontziaren bigarren agintaria izanik, bere ontzia oso egoera larrian zegoela ikusi zuen; Frantziako almiranteak ziaboga egiteko emandako aginduaren ondorioz ontzia borroka linearen azken lekuan geratu zen. Hortik aurrera eta estrategia ahalmenak galdurik Txurrukarekin batera borrokan atzealdetik sartzea erabaki zuen. Horren ondorioz makina bat ontzi etsai izan zituen aurrean. Besteak beste, 100 kanoiko *Dreadnought* ontzi beldurgarria. Etsaiaren erasoari eusten egin zuen bataila osoa eta horri esker porrotaren amaieran flota bildu ahal izan zen Cadizerantz abiatzeko. Baina Moyua ahalegin kementsu horren erdian zendu zen, eta bere zaintzaile Txurrukak ere azkeneko hatsa eman zuen pixka bat lehenago. Jakin bazekiten beraien ontzia amua zela Britainiarren eraso erakartzeko, baina arriskua berengain hartu zuten, eta gaur egun ere ausardia eta sosegu eredu dira.

Francisco de Moyúa fue la mano derecha de Churruca en Trafalgar. Nacido en Bergara, se incorporó como guardia-marina a la Armada en 1777, estando avalado por su tío José de Mazarredo. Desde sus primeros años se mostró como un hombre versado en matemáticas, astronomía e hidrografía, así como un buen conocedor de las estrategias náuticas. Tras el sitio de Gibraltar sería ascendido a alférez de navío, participando en las acciones hasta el final de la campaña. Pero el "marino de guerra" pronto pasó a ser "marino científico", pues en 1794 fue embarcado junto a Ventura Barcaiztegui en la expedición de las Antillas. El regreso a la Península, como en el caso de Churruca, se produjo tras la salida de España de la Primera Coalición y la posterior y nueva guerra frente a Inglaterra. A Francisco de Moyúa se le nombró por entonces capitán de fragata, participando con este rango en las operaciones atlánticas de combate a lo largo de toda la campaña, esta vez en alianza con Francia. Junto a Churruca, del cual era ya amigo desde la época de las expediciones, fue enviado a Francia hasta 1802, visitando la Corte Consular de Napoleón. Eran los tiempos de la Paz de Amiens. No obstante, con la renovación de la guerra en 1804, Moyúa quedó destinado definitivamente al *San Juan Nepomuceno*, acompañando así a su admirado amigo. El *San Juan* se unió a la Combinada en El Ferrol, permaneciendo luego en Cádiz hasta la fatídica orden de salida del 19 de octubre de 1805. Moyúa, como segundo del *San Juan*, se dio cuenta desde las primeras horas del día 21 de la mala posición de su buque, al quedar el último de la línea de combate tras la orden de virada del almirante francés. A partir de ese momento, y perdidas sus capacidades estratégicas, decidió junto a Churruca entrar en combate por retaguardia, enfrentándose a un número excesivo de enemigos, entre ellos el temible *Dreadnought* de 100 cañones. Su acción de retención de las fuerzas rivales, en función de una resistencia constante, permitió así que el resto de la Flota pudiera reagruparse al final del desastre y marchar a Cádiz. Pero Moyúa falleció en aquel denodado esfuerzo pocos minutos después de asistir a la agonía de su gran mentor Churruca. Su barco había servido conscientemente de cebo, pero él asumió aquel riesgo con una entereza que hasta hoy es paradigma de valor y serenidad.

Francisco de Moyúa was Churruca's right-hand-man at Trafalgar. Born in Bergara, he joined the Navy as a midshipman in 1777 under the protection of his uncle, José de Mazarredo. From the beginning, he gained a reputation for being well-versed in mathematics, astronomy and hydrography, and in maritime strategy. After the siege of Gibraltar, he was promoted to ensign and took part in a number of actions towards the end of the campaign. But the "warrior sailor" soon became the "scientist sailor" as, in 1794, he was assigned, together with Ventura Barcaiztegui, to the expedition to the West Indies. His return to the Peninsula, as was the case with Churruca, coincided with the moment when Spain abandoned the First Coalition and, subsequently, found herself involved in a new war against England. At this time, Francisco de Moyúa was promoted to second lieutenant and took part, with this rank, in operations in the Atlantic throughout the entire campaign, this time as an ally of France. Together with Churruca, whom he had befriended in the days of the expeditions, he was sent to France until 1802 and visited the Consular Court of Napoleon. These were the days of the Peace of Amiens. However, when war broke out again in 1804, Moyúa was finally assigned to the *San Juan Nepomuceno*, together with his good friend. The *San Juan* joined the Combined Fleet at El Ferrol and later remained in Cadiz until the ill-fated order to sail on October 19th 1805 was given. Moyúa, as second in command of the *San Juan*, realised, from the early hours of the 21st, the dangerous position of his ship which was the last unit in the line of battle after the French admiral gave the order to go about. From that moment on, and once his strategic advantage had been lost, he decided, together with Churruca, to engage from the rearguard, where she was, in turn, engaged by an excessive number of enemy ships, including the 100-gun *Dreadnought*. Their delaying action, based on constant resistance, allowed the rest of the fleet to re-group at the end of the disaster and sail for Cadiz. But Moyúa died during the staunch attempt a few minutes after witnessing the death of his great mentor, Churruca. His ship, had consciously been used as a decoy, but he assumed that risk with the fortitude that, still today, is considered a paradigm of bravery and serenity.

FRANCISCO de MOYUA